

# KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

## 2023ko apirilaren 14ko

### BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatcegy, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Maud Gastigard, Roger Barbier, Sébastien Carre (20:00tik goiti), Peio Etcheleku (19:40 arte), Jean-François Lacosta (19:40 arte), Argitxu Hiriart-Urruty (19:40 arte), Philippe Bacardatz (19:40 arte), Nathalie Aïçaguerre (19:40 arte), Jean-Paul Alaman (19:40 arte), Amaia Beyrie (19:40 arte), Lilian Hirigoyen (19:40 arte), Alain Boscq (19:40 arte), herri biltzarkideak.

Ez ziren hor: Didier Irastorza, ordea, Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe, Bernadette Remeau, Sébastien Carre (20:00ak arte), Carmen Gonzalez, Peio Etcheleku (19:40tik goiti), Jean-François Lacosta (19:40tik goiti), Argitxu Hiriart-Urruty (19:40tik goiti), Philippe Bacardatz (19:40tik goiti), Nathalie Aïçaguerre (19:40tik goiti), Jean-Paul Alaman (19:40tik goiti), Amaia Beyrie (19:40tik goiti), Lilian Hirigoyen (19:40tik goiti), Alain Boscq (19:40tik goiti), herri biltzarkideak..

Ahalordeak: Didier Irastorzak Eliane Aizpururi, Jean-Paul Eyheracharrek Jean-Noël Magis-i, Isabelle Ayerbek Maud Gastigard-i, Bernadette Remeau-k Roger Barbier-i, Sébastien Carré-k Christian Devèze-ri (20:00 arte), Carmen Gonzalez-ek Christiane Hargain-Despéries-ri.

#### - Saioko idazkariaren izendapena.

**Biltzarkideek aho batez, Véronique Cadepond-Larronde anderea izendatu dute saioko idazkari izateko.**

#### **19:40 arte:**

Herri biltzarkideen kopurura .....	29
Presente diren herri biltzarkideak.....	23
Ahalorde kopurua.....	6
Hor ez diren kopurua.....	6

#### **20:00tik goiti:**

Herri biltzarkideen kopurura .....	29
Presente diren herri biltzarkideak.....	15
Ahalorde kopurua.....	5
Hor ez diren kopurua.....	14

#### - Solasgaiak:

001 - 2023ko martxoaren 8ko Herri Biltzarraren Akta.....	2
002 – Euskal Elkargoa: 2023ko aitzinamendu kontratua.....	2
003 – Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua: Elorri Mendi kudeatzeko hitzarmena.....	8
004 – Ezpeletako AGAZ-aren finantzazio hitzarmena.....	8
005 – Egonaldi zerga: 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren tarifak.....	9
006 – Tokiko zergak: tasen finkatzea.....	11

007 – Elkarteentzako dirulaguntzak. ....	12
008 – GEUZarentzako dirulaguntza. ....	13
009 – Eskolen Kutxarentzako dirulaguntza. ....	13
010 - Hautetsien urteko sariak. ....	14
011 – Finantzak: kredituak atal batetik bestera pasatzea - M57.....	14
012 – Aurrekontu nagusia: 2023ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea. ....	14
013 – 2023ko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK - AP/CP).....	18
014 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2023ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea. ....	19

## 001 - 2023ko martxoaren 8ko Herri Biltzarraren Akta

### **ERABAKIA:**

2023ko martxoaren 8ko saioaren akta Herri Biltzarraren bozkara eman da.

Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

**ONARTU DU** 2023ko martxoaren 8ko Herri Biltzarraren Akta.

### **Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2023ko martxoaren 19tik 31ra:
  - 30 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 1
  - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobitxoak): 1

## 002 – Euskal Elkargoa: 2023ko aitzinamendu kontratua.

### **HITZ HARTZEAK:**

*Auzapezak oroitarazi du herriak aitzinamendu kontratua izenpetu zuela 2015ean, eta hori 2021eko abenduaren 31an iraungi dela. Iaz urte beterako berriz izenpetu zuten halako kontratua diruztatzen duten hiru aldeek. Kontratua 2023 urterako luzatzea proposatu du. Azpimarratu du herria euskara gehiago txertatzera engaiatu dela, langile euskaldunak kontratatuz, behin eta berriz adierazi duen bezala. Esparru horretan, bi langile euskaldun sartu dira herriko langileen taldean, eta espero du kontratuaren ebaluazioak kontratazio berri horiek kontuan izanen dituela, herriak euskararen alde garatzen duen politika segitu ahal izateko.*

*Peio Etcheleku jaunak hitza eskatu du eta honako adierazpena egin:  
Gau on deneri! (euskaraz errana).*

*Hasi aitzin, pozten naiz bi langile horiek kontratatu baitira. Biak dinamikoak eta gainera euskaldunak dira, eta espero dut hats berria ekarriko dutela.*

*Euskara aitzinamendu kontratua aipatzen dugunez, ez naiz sobera luzatuko, baina honakoa erran nahi nuke: Orain erranen dizuedanak zinez hunkitu nau, eta horregatik, erranen ditudan hitzak hobeki menperatzeko, idatziz eman ditut:*

*«Hitz hauek Roger BARBIER, gure lankidearen, jarrera "errepikakor" eta "gogoetatua" aipatzeko izanen dira. Orain dela hamar bat egun, Christian, bide eta errepideen batzordea deitzea onartu duzu, Herri Biltzarra hartu erabaki baten kontra egiteko, eta uste dut lehen aldia dela halakorik gertatzen dela. Hain zuzen, gure herriko karrika eta bideen helbideratzean eguneratzeak, zuzenketak eta gehiketak egiteari buruzko erabakia zen kolokan ezartzen zenuena. Erabakia iazko abenduan aho batez onartua izan zen, eta aitzineko agintaldian hasi lan luze baten emaitza zen. Lan xehea egin behar izan genuen horretara heltzeko.*

*Erabaki horren berriz aztertzea eta batzordearen deitzea Roger BARBIER-en ikuspegi oso pertsonal eta bereziari zor zaio. Zehaztu behar dut hemen BARBIER jaunak ez zuela Euskararen, gure hizkuntza zahar eta maitearen ortografia arauari buruzko prestaketa lanetan parte hartu.*

*Euskararen normalizazioan, hedapenean eta sustapenean diharduten adituen proposamen eta argudio zientifiko eta akademikoak defendatzen ari nintzela, eta urtero Euskaltzaindiari dirulaguntza bozkatzeko dugula, Roger BARBIER-ek kontra-argudio irrazionalak eman dizkigu, eta hala kalifikatzen ditut zeren "terrorista" izendatu baininduen. Badakit gaur egun termino horiek modan direla korrante politiko batzuetan, eta nahiz ene ama-hizkuntzan ez izan, hitz horien indarra eta akusazio zenbaiten indarkeria eta erra nahia ongi neurtzen ditut. Eta menturatuko banintz, terrorista hitzak Euskal Herriaren historia ez hain zaharrear konnotazio berezia duela erranen nuke.*

*Erreakzio epidermiko eta pentsamenduz haratagokoa izan zuela egotziko didate batzuek... Ez dut uste, ordea, hala denik.*

*Izan ere, akusazio larri, mingarri eta umiliagarri hark beste gertaldi gogoetatu eta errepikatuak ekarri dizkirate gogora, eta dudarik ez da herri biltzarkide horren ideologiaren eta filosofiaren adierazle direla.*

*Hain zuzen, iragan agintaldian Euskara batzordearen akta zabaldu nuen honako izenburuarekin: "Compte rendu de la commission Euskara". Roger BARBIER oldartu zitzaidan, tonu oro jakitun eta menderatzailearekin "lotsagarria" zela ene partetik "Euskara" terminoa erabili izana frantsesez euskara adierazteko; ez zukeen jakingo frantses hizkuntzaren hiztegietan "euskara" hitza existitzen dela, Larousse hiztegian berriki egiaztatu ahal izan dudanez.*

*Beste zenbait karietara ere, Roger BARBIER-ek adierazi izan du zer iruditzen zitzaion euskara frantsesaren mailan ezartzea eta haren sustatzeko dugun borondatea: gogoan ditut euskara atzerriko hizkuntza mailara jaisteko bere hitzartze zenbait, erraiten baitzuen herriko zenbait komunikazio euskaraz itzultzekotan espainolez eta ingelesez ere itzul zitezkeela. «Duck Race» ahate lasterketaren aitak bere iritziei eusten die.*

*Horrela, sakonki mindua izan naiz, ene identitatean, defendatzen ditudan tolerantzia eta elkarrenganako errespetu baloreak direla-eta. Jende oroengan aplikatzen saiatzen naizen baloreak, eta agian kalitate hori aitortuko didazue:*

- *Lehenik, jarrera hura kolonoek populu kolonizatuengan zuten mesprezu eta gutxiespenaren islaren antzekoa dira.*
- *Bestalde, ene haurtzaroko eta lehenagoko belaunaldietako garai sentiberak dakarzkidalako gogora.*

*Ikastolan eskolaratuak izan diren lehen belaunaldietakoa naiz. Nekez irudika daiteke Donazaharreko haurtxo batek sentitu duen bazterkeria eta oinazea, herriko beste haurrengandik baztertua denean bere gurasoek ondarrerik baliosena transmititu nahi izan diotelako, gure arbasoen hizkuntz zoragarria.*

*Ikastolen mugimendua sortu zen, frantses Errepublikoako "Hussards noirs" deituriko irakasleek hamarkada luzetan izan zuten jarrera kriminalari ernatzunez, indarkeria psikologiko, moral eta fisikoan oinarritutako koertzisio sistemak gure aitatxi-amatxiak, eta gure gurasoak zigortu zituenean, modu pentsatu eta errepikatuan, maiz zauri senda ezinak eraginez.*

*Beharrik gaur egun Euskal Herria lurraldeak Euskara altxortzat duela, gure hizkuntza salbatzeko premia larriaz jabetu dela. Aitzineko agintaldian, Christian, zuk zeuk, bozkatu zenuen Euskara Elkargoko Euskal Herria lurraldeko hizkuntza gisa aitortzeko. Gure Herri Biltzarrak, gaur bezala, hainbat ekintza sustengatu edo bideratu ditu zentzu horretan. Azkenik, nahiz eta aitzinamenduak euskalgintzaren irudiko ez diren nahikoa, Frantziako V. Errepublikako Konstituzioak, uste dut 52. artikuluan, aitortzen du eskualdeko hizkuntzak Frantziaren ondare immaterialaren funtsezko osagai direla.*

*Horiek horrela, behin eta berriz eta kontzientzia osoz halako jarrerak izanik, Roger BARBIER-en jarrera elkarrenganako errespetua eta anaitasuna bultzatzen duten frantses Errepublikaren funtsezko baloreen aurka dago.*

*Iragan agintaldian, gure biltzarkide batek herriko batzorde batean arrazismo eiteko hitzak eman zituenean, gure zerrendako arduradunek, eta zu Christian horietakoa zinen, ez genuen duda mudarik izan biltzarkide horren baztertzeko. Gure kontra errandakoak kontuan izanik, bereziki beste hautetsi eta herriko langileen aitzinean, bereziki gehiengoko kideok, halako hitzen ondotik har zenitzaketan ondorioei buruz gogoeta baten egitera dei egiten dizuet.*

*Milesker»*

*Auzapezak ihardetsi dio gaiaren bozkatzear, beharrik Herri Biltzarrak erabaki berria har dezakeela, bere lehen bozka hobetzeko xedearekin, eta horretarako Herri Biltzarrean berriz aurkeztea. Ohartarazi du, batzordearen iritzia aho batez onartu eta, batzorde bera berriz deitu nahi izan zuela, nahiz eta ez behartua izan, iritzi berria eman zezan, helburua izanik Roger Barbier jaunak bere oharrak aurkezteko aukera izan zezala.*

*Auzapezak aitortu du, bera ez zegoen bilkura hartako giroa, parte hartzaile zenbaitek eraen diotenaren arabera, justuki kritikatu dela Roger Barbier-ek izan dituen hitzengatik. Auzapezak espero du hitzak eman dituenaren pentsamendutik harago joan direla.*

*Nahiago du gogoratzea udal gehiengoak Euskararen sustatzearen alde duen engeiamendua, aspaldidanik. Azpimarratu du zailtasunak dituztela herriaren indarrak Euskal Elkargoaren proposamenekin bateratzeko aitzinamendu kontratuaren baitan. Aurreikusiak ziren bi kontratazio berriak begi onez ikusten ditu eta berretsi du borondate irmoa duela dinamika horretan segitzeko. Solasgaietako lehen puntuaz egiteko zuen azalpenak emanik, Auzapezak Roger Barbier jaunari eskatu duen hitza eman dio.*

*Roger Barbier jaunak Peio Etcheleku jaunari barkamenak eman dizkio batzordean oldarkor mintzatzeagatik, eta aitortu du ez duela "terrorista" hitza erran baizik eta "terrorismo intelektual". Zehaztu du, ez zuela inolaz ere inor erasotu nahi, eta eman hitzak deitoratzen ditu norbaiti kalte egin badiote. Barkamenak udal gehiengoari ere zabaldu dizkio, jabeturik kinka larrian ezar zezakeela.*

*Auzapezak orduan hitza eman dio toponimoez eta horien euskarazko itzulpenaz mintzatu nahi duen orori.*

*Lilian Hirigoyen anderea:*

*Gau on deneri! (euskaraz errana) Gau on. Egia de Peiok bere hitzartzean jada arazoari buruzko gauza anitz erran duela, baina Nahi Dugun Herriako zazpi kideok idatzi eta gurekin batera Jean-François-k eta Peiok izenpetu testua irakurriko dizuet. Irakurtzen hasiko naiz. Horra:*

*«Arditeya? Arditegia? That is the question.*

*Apirilaren 3an bideen batzordea Herriko Etxean bildu zen. Bertan jakinarazi ziguten Kanboko bide batzuen ortografia berrikusteko biltzen ginela, nahiz eta 2022ko abenduaren 21eko erabakiak izendapen horiek balioetsi.*

*Honako gogoetak partekatu nahi genituzke zuekin:*

*Erakunde anitzek aitortzen dute Euskaltzaindiaren lan gaitza, eta horren arauak betetzen dituzte:*

- Frantziako Hezkuntza Ministerioak, bere ekoizpen guztietan, azterketak barne, eta maila guztietan, euskara batua erabiltzen du.*
- Vatikanoko II.etik Eliza katolikoak eskatu zuen liturgia euskaraz itzulia izan zedin Bilbotik Maulera, eta euskarazko Biblia berria ekoiztu zuen orain dela urte zenbait,*
- Frantziako IGN, geografia institutuak Euskaltzaindiaren arauak betetzen ditu euskal toponimiarentzat,*
- Unibertsitateek, irakasleek, ikasleek (mugaz bi aldeetan), eskola guztiek,*
- Euskal Herri osoko erakunde politikoek,*
- Baita idazleek ere, Kanbori dagokionez Miche Labèguerie, argitaletxeek, museoak (Guggenheim, Bonnat museo berrituak) eta beste andana, hedabideek, (publiko nola pribatuak), kirol federazioek, herriko etxeek eta abar.*

*UNESCOren arabera, hizkuntza baten biziraupenaren hiru zutabeak dira hizkuntza estandar baten ukatea (euskara batua), eskoletan erabiltzea eta hedabideetan erabiltzea.*

*Ardurak dituzten erakundeek hizkuntza normalizatua erabiltzea ezinbesteko baldintza da edozein hizkuntzak biziraun nahi badu. Erran genezake, ikuspegi horretatik euskara bide onean dela.*

*Hizkuntzaren normalizazioa, besteak beste erreformatatik heldu da, ortografiarena kasu. Orain ehun urte, euskaraz Kanbo Cambo idazten zen. C A M B O. Baita lehenago ere, begiratu dut. Gaur egun, K A N B O forma ez da nehoentzako arrotz. Gaur egun nehork ez du New York "Niou Iorque" idazten, irringarria da, baina ez du zentzurik. Ez da hizkuntzarik idazten beste baten ortografiarekin. Ortografia erreformek beti eztabaida sutsuak eragin dituzte. Ikus Frantziako historia, irakaspenez betea duzue. Berriki gehiengoko hautetsi batek « arditegia » ortografia terrorismotzat jo du: zoritxarrez euskarak ere halako kalapitak baditu.*

*Gainera, ez ditugu ahantzi behar gure herriko ehunka haur eta gazte euskaraz ikasten ari direnak azken berrogeita hamar urteotan, izan eskola publiko eta katoliko frantsesetan nola Ikastolan; ez lukete ulertuko panelak ortografia akatsekin ikustea. Gaurko belaunaldientzat euskara modernitatearen hizkuntza da, bizirik dagoena, bilakatzen dena, egokitzen dena eta neologismoak sortzen dituena, gizartearen bilakaera segitu ahal izateko.*

*Gainera, gure herriak euskara batua aitortzen du, haren hedapena sustatzen du, akademiak finkatu arauen arabera: Euskaltzaindiari urtero ematen zaion dirulaguntza eta urtez urteko aitzinamendu kontratuak horren lekuko dira.*

*Orain gure aldi da eraikuntza horretan gure ekarpena egiteko. Arditeya/Arditegia, azalpenik behar lukete batzuek, baina herritarrek ulertuko dute, guk nahi badugu hasteko (zergatik ez egin Kanboko karrika izenei buruzko erakusketa bat) Gure erabakiak onartuko dituzte.*

*Guk, Kanboko hautetsiok zer hautatuko dugu? Uzurtasunaren bidea, euskara azpi-hizkuntza mailara azpiratuko duena, edo euskarari sustengua, oroitu ez ditzakegun garaietan gure herria kantuz ezarri duen hizkuntza?*

*Ondorioz, batzordeak eman iritzia bere osotasunean berresten dugu, eta abenduko erabakiaren aldaketa ororen kontra gaude eta izanen gara. Milesker»*

*Auzapezak zehaztu du, batetik ez dela sekulan bide izenak euskaraz ezartzearen kontrako borondaterik, eta bestalde ez dela sekula izan gaurko solasgaien zerrenda aldatzeko eta gai horretaz bozkatzeko xederik. Halakorik egitekotan berantago egingo litzateke.*

*Gero, Euskaltzaindiari buruzko azalpen luzeari jarraikiz azpimarratu du Herriak bat egiten duela Euskaltzaindiak defendatzen duen euskara batuaren aldeko helburuarekin.*

*Zehaztu du «bideak» batzorde hartan, Roger Barbier jaunak bere ikusmoldea modu trakets ez adierazi zuela.*

*Jean-Noël Magis jaunari eman dio hitza.*

*Honek, Barbier jaunaren eskaera gehiengoko taldearen izenean birformulatu nahi izan du.*

*Batzordeak egin lanaren garrantzia aitortu du.*

*Zehaztu du euskarazko itzulpena ez dela zalantzan ematen, baina koherentea eta logikoa dirudiela bide batzuen izenak jatorrian frantsesetik idatziak ziren bezala mantentzea. Izatez, izen horiek toponimiako edo etxaldeetarako bideen izen propio bezala hartzen dira. "Celhaya" frantses ortografiaren kasua hartu du, erranez euskaraz Z.E.L.A.I.A, idazten dela baina nahiago lukeela C.E.L.H.A.Y.A. idazten segitzea «frantses» ortografiarekin.*

*Gehitu du egitura horretako egoiliar batzuek erran diotela frantses ortografiari atxikiak zirela, ondareko osagaia delakoan. Ondorioz, proposatu du aldaketa horiek bideen batzordeari aurkeztea bere iritzia eman dezan, menturaz heldu den Herri Biltzarrean zerrenda moldatua giro baketuan aurkezteko.*

*Auzapezak azaldu du lanak ez direla oraindik abiatu, baina dakienek aldatu beharko liratekeen kopurua mugatua dela. Gehitu du bideen batzordearen datorren lanak frantsesetik izenen bertsioei buruzko iritzia eman beharko duela. Beraz, eztabaida batzordean eta gero Herri Biltzarrean egingen da.*

*Amaitzeko besteak beste, orduan ohar teknikoak egin nahi izan du bere izenaren ortografiari buruz. Azaldu du "Amaya" "idatzia dela, "Y" batekin paperetan, egoera zibileko langileak argudiatu baitzuen "I"rik onartzen ez zuela frantses ortografiarekin bat ez zetorrelako. Oroitarazi du herri biltzarkide batek ere borrokatu behar izan zuela bere alabaren izena ortografia errespetatzen. Azpimarratu du euskara ez dela soilik gure arbasoen hizkuntza, baizik eta egunero pertsona zenbaitek erabiltzen dutena, eta biharko belaunaldia. Euskaltzaindiak ortografiaren onarpenean egiten duen lana azpimarratu du, eta ohartarazi datozen belaunaldiak euskaraz eskolari esker alfabetatuak izanen direla. Azpimarratu du ere inportantea dela euskararen etorkizunean bakarrik ez zentratzea, baita gerokoan ere, euskal ortografia mantenduz frantsesaren ordez. Azpimarratu du euskara hainbat eratarik idatz daitekeela, baina inportanteena dela geroko belaunaldiei egokitzeko gaitasuna duen hizkuntza eta errespetuz tratatzen dena transmititzea.*

*Helduentzako euskara irakasle bezala, ohartu da euskal ortografia erraza dela, fonetiko delako, eta horrek euskara ikasten dutenen ikasprozesua errazten duela. Bukatzeko, ohartarazi du alfabetoan dagoen hizki kopurua ez dela argudio bidezkoa, zeren euskarak 23 letra baititu eta frantsesak 26.*

*Auzapezak azpimarratu du, printzipioaren aldetik denak ados direla eta ez dagoela karriken izena euskaraz deklinatzearen zalantzan ezartzeko asmorik. Kontua da egin diren oharrak ulertu behar direla eta ikustea ea aldaketa batzuk egin daitezkeen baina izen propio batzuk beren jatorrizko idazkeran mantenduz. Zehaztu du hori dela, hain zuzen, Roger Barbier-ek egin oharra, eta entzungarria izan litekeela argiki eta lasaiki adieraziz gero. Galdetu du beste hitz hartzerik ba ote dagoen.*

*Argitxu Hiriart-Urruty andereak erantzun dio ez dela batere ados, Lillian Hirigoyenek irakurri duen testuan argiki azaldu den bezala, eta gehitu du «ez daudela ados eta joanen direla».*

**19:40 : Nahi Dugun Herriako kideak (Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lillian Hirigoyen, Alain Boscq) eta Peio Etcheleku eta Jean-François Lacosta gelatik atera dira.**

**Auzapezak saioa eten du.**

**20:00: Sébastien Carre gelan sartu da.**

**Quoruma betea denez, Auzapezak saiori segida eman dio.**

**ERABAKIA:**

Auzapezak oroitarazi du 2015eko azaroaren 30eko erabakiz, herriak aitzinamendu kontratu urraspidean sartu zela, euskara progresiboki txertatzeko eginkizunean lagundua izateko.

Lehen belaunaldiko kontratua Errobi Herri Elkargoaren, Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) eta herriaren artean izenpetua, 2016ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra luzatzen zen.

2021 bukaeran, lehen aitzinamendu kontratuaren balorazioa egitean, 2021eko abenduaren 16ko erabakiz, herriak urte beteko kontratua izenpetu zuen, lehengo herri elkargoetatik gaur egun Ipar Euskal Herriko 158 herriak biltzen dituen Euskal Hirigune Elkargorako bilakaera instituzional eta eragilea kontuan hartzeko.

Honakoak ziren aldaketa nagusiak:

- EEP kontratutik desagertzen zen, Euskal Elkargoak hartu baitzuen hizkuntz politika gaitasuna;
- Euskal Elkargoak Errobi elkargoa ordeztzen zuen;
- Herriak eta Euskal Elkargoak gastuak erdibana hartzen zituzten;
- 2022ko maiatzetik goiti, herri bakoitzak ditu gastu guztiak ordaintzen eta Elkargoari dagokion zatia itzultzea eskatuko zion.

Bere aldetik, herria euskara txertatzeko barne prozesu batean engaiatu da, herriko langile euskaldunak kontratatuz euskara sustatzeko herriaren lurraldean eta herriko etxean.

Alabaina, 2022 hondarrean eta 2023 hasieran hizkuntz politikarako bi langile euskaldunen kontratazioak ez du ahalbidetu aitzinamendu kontratua eguneratzea.

Bizkitartean, eta herriko langileen artean berrabiatu den dinamika ez zapuzteko, lehen kontratuan identifikatu ziren zerbitzuetako (herritartasuna zerbitzua eta giza baliabideak) bi langile formakuntzara 2023an bidaltzeko, eta itzulpenen eginarazteko 4 000 €ko laguntza ukateko, proposatu du urte beteko beste aitzinamendu kontratu bat egitea.

Ondorioz, herriko kontratazio berrien zain, Herri Biltzarrari proposatu dio hasteko 2023urterako aitzinamendu kontratu baten egiteari buruz erabakitzea.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

**BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari, Euskal Elkargoarekiko 2023ko aitzinamendu kontratua izenpetzeko Kanbo Herriaren izenean, eranskinean agertzen den bezala,

## **003 – Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua: Elorri Mendi kudeatzeko hitzarmena.**

### **ERABAKIA**

Goytino jaunak, auzapez ordea, adierazi du Kanbo herriak Pirinio Atlantikoetako Departamendutik eskaera ukan duela, Departamenduaren jabegoko Elorri Mendiko naturagune sentikorrean egiten diren ekintzen arautzeko hitzarmen baten egiteko.

Hitzarmen horretan zehaztuko dira herriko zerbitzuek (teknikoak, udaltzaingoa, komunikazioa...) Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren gidaritzapeko gunearen mantenuan, kudeaketan eta animazioen antolaketan izanen duten esku hartzea.

- Astero, Elondare eraikineko komunak eta inguruen garbiketa, eta muinoaren oinarrian den aparkalekuarena,
- Tindaketen ezabatzea,
- Ekitaldi batzuentzako logistika eta materiala prestatzea,
- Gai tekniko zenbaitentzako laguntza eta talde lana (linea elektrikoaren ezabatzea, harrera aparkalekuaren birkalifikatzea...),
- Gunearen errespetua bermatzea, bertan bete beharreko ordenantza eta araudi bat ezarriz,
- Naturagunea THPn mantentzea,
- Muinoaren oinarrian den joko eremuaren mantenua eta haren erantzukizuna.

Departamenduak lekuaren jabe izaten segituko du, kudeaketa orokorraz arduratuko da eta erabilpenari loturiko erantzukizuna du:

- Naturagunearen kudeaketa eta balioztatzea,
- Oihanaren kudeaketa,
- Publikoarentzako mantenu eta antolamendu ekintzak,
- Inbertsio ekintzen diruztatzea,
- Hirugarrenetik hitzarmenen kudeaketa eta erredakzioa,
- Kanboko udal zerbitzuek eraman ditzaketen ekintzentzako diruzko parte hartzea, %50 arte eta gehienez 2000 € urtean.

Hitzarmenaren iraunaldia.

Goytino jaunaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

**BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluarekiko hitzarmena izenpetzeko, eranskinean agertzen den bezala.

## **004 – Ezpeletako AGAZ-aren finantzazio hitzarmena.**

### **ERABAKIA:**

Aristizabal andereak, auzapez ordea, oroitarazi du Errobi lurralde eremuko herriek erabaki zutela herritik kanpo aisialdi zentrora joaten diren haurrentzako diru parte hartze baten adosteko.

Haur bakoitzeko eta egun bakoitzeko 10 €tan finkatu zen.

Aristizabal anderearen azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:



**BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari, Kanboko haurrek Ezpeletako AGAZera joateko diruztatze hitzarmena izenpetzeko, 2023rako, eranskinean agertzen den bezala.

## **005 – Egonaldi zerga: 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren tarifak.**

### **ERABAKIA:**

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Gure herrian aterpe profesional nola ez-profesionaletan, autokarabana guneeetan eta abarretan gutxienez gau bateko egonaldia egiten duten 18 urtetik gorakoek ordaintzen dute egonaldi zerga. Zerga hori lurraldearen erakargarritasuna hobetzera, eta harrerara, informaziora, sustapenera, antolamendura eta bertako ondarearen balioan ezartzera bideratzen da, turismo xede batekin.

2020ko abenduaren Frantziako 2021-1721 legea, 2021eko finantzei buruzkoak, ezarriko diren tarifei buruzko erabakiak hartzeko data aldatu zuen, eta geroztik urte bateko urtarrilaren 1ean indarrean izanen direnak aitzineko urteko uztailearen 1a baina lehen onartu behar dira.

2018ko urtarrilaren 1etik goiti, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluak %10eko egonaldi zerga gehigarria indarrean ezarri zuen.

Departamendu batzuetan, hala nola, Pirinio Atlantikoetan, Akitania Berria eskualdeak %34ko zerga gehigarria indarrean ezarriko du 2024ko urtarrilaren 1etik goiti, « Société du Grand Projet du Sud-Ouest » (GPSO) Tokiko Erakunde Publikoaren (TEP/EPL) alde. (76 LF 2023 artikulua, eta LKKOko L4332-4, L4332-5 eta L4332-6 artikulua).

Zerga gehigarria, oinarritzko egonaldi zergaren baldintzetan biltzen da.

Ondorioz, egonaldi zergaren tarifak horien arabera egokitzea proposatu du, turismo sailkapena duten estazioentzat, eta 2024ko urtarrilaren 1etik goiti honako taularen arabera zerga egonaldi tarifak finkatzea, pertsona eta gau bakoitzeko, arauzko kategoria guztientzat:

### **Salbuespenak:**

2015eko apirilaren 23ko erabakiz, Herri Biltzarrak, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2333-31 artikulua arabera, honakoak egonaldi zergatik kanpo uztea erabaki zuen:

- adin txikikoak,
- herrian lan egiten duten eta denboraldiko kontratua duten langileak,
- larrialdi etxebizitzan eta behin-behineko etxebizitzan dauden pertsonak,
- hilabeteko errenta 300 €tik beherakoa duten etxebizitzak.

Aterpe emaileek honako datetan isuri beharko dute bildutako egonaldi zerga:

- Lehen hiruhilekoan bildutako zerga, apirilaren 1 eta 15 artean,
- Bigarren hiruhilekoan bildutako zerga, uztailearen 1 eta 15 artean,
- Hirugarren hiruhilekoan bildutako zerga, urriaren 1 eta 15 artean,
- Laugarren hiruhilekoan bildutako zerga, urtarrilaren 1 eta 15 artean,

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

**ONARTU DU** 2024ko urtarrilaren 1etik goiti indarrean izanen diren egonaldi zergaren tarifak eta haren biltzeko baldintzak, eranskinean eta ondotik zehaztuak diren bezala.

**2024ko URTARRILAREN 1etik INDARREAN IZANEN DIREN EGONALDI ZERGAREN TARIFAK**

KATEGORIAK	Tarifak: Kanbo, pertsone eta gau bakoitzeko (zerga gehigarriez kanpo) 2024ko urtarrilarne 1etik goiti (1)	Egonaldi zergari gehitzen zaion Departamenduko zerga gehigarria: %10 (2)	Egonaldi zergari gehitzen zaion Eskualdeko zerga gehigarria: %34 (3)	Departamenduko eta Eskualdeko zerga gehigarriekin indarrean izanen den egonaldi zerga orokorra <u>2024ko</u> <u>urtarrilaren 1etik</u> <u>goiti (4)</u>
Palazioak	4,20 €	0,42 €	1,43 €	6,05 €
5 izarreko turismo hotelak, 5 izarreko turismo erresidentziak, 5 izarreko turismorako etxebizitza ekipatuak	2,27 €	0,23 €	0,77 €	3,27 €
4 izarreko turismo hotelak, 4 izarreko turismo erresidentziak, 4 izarreko turismorako etxebizitza ekipatuak.	1,79 €	0,18 €	0,61 €	2,58 €
3 izarreko turismo hotelak, 3 izarreko turismo erresidentziak, 3 izarreko turismorako etxebizitza ekipatuak.	1,17 €	0,12 €	0,40 €	1,69 €
2 izarreko turismo hotelak, 2 izarreko turismo erresidentziak, 2 izarreko turismorako etxebizitza ekipatuak, 4 eta 5 izarreko oporraldi herrixkak.	0,85 €	0,08 €	0,29 €	1,22 €
Izar leko turismo hotelak, izar leko turismo erresidentziak, izar leko turismorako etxebizitza ekipatuak, 1,2 eta 3 izarreko oporraldi herrixkak, landa etxeak	0,65 €	0,07 €	0,22 €	0,94 €
3, 4 eta 5 izarreko kanping eta karabana zelaiak, edo antzeko beste edozein aire libreko aterpe guneak, autokarabana guneetako kokalekuak, eta turismorako aparkalekuak 24 orduko tarteka.	0,60 €	0,06 €	0,20 €	0,86 €
1 eta 2 izarreko kanping eta karabana zelaiak, edo antzeko beste edozein aire libreko aterpe guneak, kirol portuak.	0,20 €	0,02 €	0,07 €	0,29 €
Sailkapenik gabeko eta sailkapen beha den aterpe oro, aire libreko aterpe gunea izan ezik.	Pertsona eta gau bakoitzeko, zergaz kanpoko gauaren prezioaren %5, gehienez 4,20 €ra mugatua			Pertsona eta gau bakoitzeko, zergaz kanpoko gauaren prezioaren %5 + %44, gehienez 4,20 €ra mugatua + %44

(4)Egonaldi zerga orokorraren zenbatekoa: (1) + (2) + (3)

### **HITZ HARTZEAK:**

Auzapezak egonaldi zergari buruzko bi gai aipatu ditu. Lehenik, Departamenduko Kontseiluko %10eko zerga gehigarriari dagokionez, azaldu du Kanboren kasuan kalkulua beti herriaren aldekoa zela. Orain proposatzen du Euskal Elkargoak bezala, kalkuluan %10a zergaren gainetik egitea.

Gero aipatu du, eskualdeko %34ko zerga gehigarria printzipioz Abiadura Handiko Trenaren "Grand Projet Sud-Ouest" deitu proiektuarentzat zela. Haatik, ziurgabetasun handia dago Bordele-Akize eta Bordele-Tolosa arteko trenbideen egiteaz. Hala ere, Frantziako 2022ko abenduko finantza legeak aurreikusia du egonaldi zergari %34 gehitzea.

Auzapezak erran du zerga zerbitzuekin harremanetan izan zela, zerga horren egokitasunaz, jakinez proiektua seguruenik ez dela gauzatuko. Zehaztu du, erabaki hori kontserbazio modura hartu izan dela.

Azkenik erran du, ezinbestekoa dela erantsirik den taulan tarifa guztiak agerraraztea, bestek beste 4,20 €ra mugatua den sailkapen beha diren aterpeentzako %5eko zerga, eta palazioei dagokiena, nahiz eta herriak halakorik ez izan.

### **006 – Tokiko zergak: tasen finkatzea.**

#### **ERABAKIA:**

Aizpuru andereak, auzapez ordea, honakoa azaldu du:

Herri biltzarrak lur funts eraikien zergaren (FEZ/TFB), lur funts eraiki gabeen zergaren (FEGZ/TFNB) eta bigarren etxebizitzaren gaineko bizitegi zergaren tasak onartu behar ditu.

Lur funtsen zergaren bariazioa kalkulatzeko, 2022ko aurrekontu nagusiaren eta 2023ko aurreikuspenen arteko fluidoan (ura, elektrizitatea eta gasa) prezioen bilakaera kontuan hartu da. Prezioen goratzea funtzionamendu gastu errealean %2,77 ingurukoa da, eta tasa hori bi funtsen gaineko zergei ezarriko zaie.

Bizitegi zergari dagokionez, 2020an tasa egokitzeko gaitasuna kendu zitzairen herriei, zerga hori pixkanaka desagertzen ari zelakoan. 2023rako, frantses estatuak bizitegi zergaren egokitzea berriz ere ahalbidetu du, soilik bigarren etxebizitzentzat. Proposatu du 2023rako zerga horri funtsen gainekoei bezala %2,77ko tasa egokitzapena egitea.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du 2023ko zerga tasak honela finkatzea:

Lur funts eraikien gaineko zerga (FEZ/TFB): %25,55

Lur funts eraiki gabeen gaineko zerga (FEGZ/TFB): %26,71

Bizitegi zerga (BZ/TH): %11,67

Ez du bozkatu: Sébastien Carre jaunak.

### **HITZ HARTZEAK:**

Auzapezak tokiko zergen gaia aipatu du eta Peio Etcheleku jaunak zergen igotzeari egin emendakina.

Emendakinaren 6 puntuak honela laburbildu ditu: 1) herriaren funtzionamendu aurrekontuak soberakina du, 2) hainbat inbertsio proiektu aurreikuspenen arabera berantean dira, 3) altxortegi-inbertsioak badira, 4) herriak finantza egoera biziki sana da, ekonomia

testuinguru orokor kezagarria eta inflazio etengabea izanik ere, 5) badira inflazioaren moteltzea iragartzen duten keinuak 2023 bukaerarako, 6) biztanleriaren errenta fiskalaren batezbestekoa lurraldeko apalenetakoa da.

Arrazoi horiengatik, emendakinak proposatzen du 2023ko zerga tasak 2022koen heinean atxikitzea.

Ondotik Auzapezak Amaia Beyrie andereak iragan herri biltzarrean bigarren etxebizitzaren bizitegi zergari buruz izan hitzartzea aipatu du. Hastapen batean, Eliane Aizpuru finantza gaietarako ordeak %8,62ko «berreskuratze» tasa proposatu zuen, baina legezko kontrolarekin izan solasaldien ondotik agertu da, fiskalitate profesional bakarreko hirigune elkargoko herria izanik zerga tasen arteko korrelazio araua bete behar dela. Arauok ez dute baimentzen bigarren etxebizitzaren gaineko zerga funtsen gaineko zerga baino azkarrago emendatzea. Ondorioz, arau horren betetzeko, hasierako aurrekontuan aldaketa egin dugu, bigarren etxebizitzaren gaineko bizitegi zergaren emendatzea %2,77ra jaisteko.

Auzapezak oroitarazi du %2,77ko emendatze proposamena fluidoaren kostuen igoerari soilik lotua dela, eta horregatik dela tasa hori hain berezia Azpimarratu du ere Kanbo ez dela izan halako erabakia hartu duen herri bakarra. Beste herri batzuek ere, zein izan ere beren joera politikoak, halako ikuspegia partekatzen dute.

Gero, Auzapezak familia xumeenen gaia aipatu du. Azpimarratu du bizitegi zerga eta ikus-entzunezkoen zerga dela nagusiki kendua izan, eta funtsen zergaren gaineko beherapen eta salbuespenak ere badirela, eta hori ahalmen gutxien duten jabeen aldekoa dela.

Inflazioari dagokionez, Auzapeza ez da Peio Etcheleku bezain itxaropentsua. Munduko Diru Funtzaren (MDF/FMI) arabera, 2023an inflazioak %7koa izan beharko luke, hots erran dena baino askoz gehiago.

Gero, Auzapezak 1995ean agintera iritsi zen André Labarrère-k taldeari errana oroitarazi du. Hark gomendatzen zuen tasen emendatze sistematiko eta mugatua hobea zela noiz behinkako emendatze bortitzak baino.

Ondotik, Peio Etchelekuren emendakina bozkara eman du, hots zerga tasak 2022ko heinean mantentzeko.

Presente ziren kide guztiek emendakinaren kontra bozkatu dute.

Sébastien Carre jaunak bozkan ez parte hartu izana justifikatu du izan dituen jarrera profesionalerikiko koherente izateko.

## **007 – Elkarreentzako dirulaguntzak.**

### **ERABAKIA:**

Auzapezak proposaturik,

Eztabaidatu eta deliberaturik, Herri Biltzarrak, bozkatu dutenen artean aho batez, erabaki du 2023 urterako elkarreentzako dirulaguntzak ematea.

Ez du bozkatu: Robert Poulou jaunak

### **HITZ HARTZEAK:**

Auzapezak dirulaguntzen gaia aipatzen hasi da, dirulaguntzetan murrizketarik ez dela izan zehaztuz. Batzuk baizik ez dira egokitu edo doitu, bereziki errugbiarena, futbolarenaren heinera eramateko, printzipioz USC eskualdeko dibisioan sartu denetik gastu gutiago izanzen baititu. 2022an eman ziren dirulaguntza zenbait ez dira eraberritu, besteak beste Michel Labéguiereren omenaldiari zegozkion dirulaguntza ez ohizkoak. Orokorrean, eman diren dirulaguntzak eskatu direnen heinekoak dira, hots iazkoak bezala inflazioa gehiturik.

*Eliane Aizpuru andereak zehaztu du ez ohizko dirulaguntza onartu zaiola pilotari, trinketearen alokairuaren emendatzearengatik, errugbiari maiatzean 2 000 haur hartuko baititu asteburu batez, eta Erraldoien Festibalari jantzien berriz egiteko. Ez ohiko dirulaguntza hauek 3 820 €ko emendatzea eragiten dute.*

*Nicole Amestoy andereak harridura agertu du igeriketari eman zaion soilik 40 €ko dirulaguntzagatik.*

*Eliane Aizpuru andereak ihardetsi dio zenbateko hori borobildu dela, zeren, nahiz eta elkarteak txapelketa batentzako dirulaguntza gehigarria eskatu, haur guti aurkezten baititu. Zehaztu du dirulaguntza batzuk bi urtetik behin ematen direla, eta horrek beherakada baten itxura har dezakeela, baina errealitatean, 2023ko dirulaguntzak %6,87 emendatuko dira orotara, edo %3,43 ez ohiko dirulaguntzak kendurik.*

*Auzapezak dirulaguntzen bozkatzea proposatu du.*

*Robert Poulou jaunak, Arnagako Lagunen presidentea, ez du bozkatu.*

## **008 – GEUZarentzako dirulaguntza.**

### **ERABAKIA:**

Auzapezak oroitarazi du; 2023ko martxoaren 31ko gutun bidez Kanboko GEUZak herriari 160 000€ko dirulaguntza eskatu diola 2023 urterako.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

**ERABAKI DU, Kanboko GEUZari 160 000 €ko dirulaguntza ematea 2023 urterako.**

## **009 – Eskolen Kutxarentzako dirulaguntza.**

### **ERABAKIA:**

Aristizabal andereak, ordea, oroitarazi du Eskolen Kutxako Batzordea 2023ko martxoaren 27an bildu dela 2023ko hasierako aurrekontuari buruzko iritzia emateko. 2022ko amaierako kontuak eta hiru eskola publikoetako ikasle kopuruak kontuan izanik, 7 126,41€ko beharra kalkulatu da. Diru hori herriak emanen du.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

**ERABAKI DU, 2023 urterako Eskolen Kutxari 7 126,41 €ko dirulaguntza ematea, hiru eskola publikoen artean honela banaturik**

- 4 433,14 € lehen mailarentzat;
- 1 909,66 € ama-eskolarentzat;
- 783,61 € Behereko Plazako eskolarentzat.

## 010 - Hautetsien urteko sariak.

### **ERABAKIA:**

Auzapezak oroitarazi du urtero aurkeztu behar direla Herri Biltzarreko hautetsiek eskuratu dituzten orotariko ordain sariak, euro gordinetan, izan herri biltzarrean bertan, sindikatu misto, ekonomia mistoko sozietate, tokiko sozietate publiko nola sozietate horietako baten filialetan dituzten mandatuengatik (Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2123-24-1-1 artikulua).

Elementu horiek hautetsiei helarazi zitzaizkien aurrekontua aztertu aitzin.

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio informazio horiek ukan izana aitortzea.

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 2123-24-1-1 artikulua;

IKUSIRIK, hautetsien ordain sariak finkatzen dituen 11-06-2020-005 erabakia,

Auzapezaren aurkezpena entzunik eta erantsirik den dokumentuaren berri ukanik, Herri Biltzarrak aho batez:

**AITORTZEN DU, 2022 urterako udal funtzioen betetzeagatik eskuratu diren ordain sarien urteko bilduma aurkeztu zaiola.**

## 011 – Finantzak: kredituak atal batetik bestera pasatzea - M57

### **ERABAKIA:**

Aizpuru andereak, auzapez ordea, honakoa aurkeztu du:

29-09-2021-066 erabakiarekin Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu zuen.

M57 instrukzioak malgutasun handiagoa eskaintzen du, ezen Herri Biltzarrak Auzapezari baimena eman baitiezaioke atal bateko kredituak beste batera pasatzeko, langile kredituak izan ezik, betiere atal bakoitzeko gastu errealeen % 7,5eko muga batean (Frantziako LKKOko L.5217-10-6 artikulua).

Hala gertatzen bada, Auzapezak Herri Biltzarrari jakinaraziko dio erabakiaren ondorengo biltzar saioan.

Aizpuru anderearen azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

**BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari M57a indarrean sartu denetik, atalez ataleko kreditu mugimenduak egiteko, langile gastuetako kredituak izan ezik (012), betiere atal bakoitzeko gastu errealeen % 7,5eko muga batean.

## 012 – Aurrekontu nagusia: 2023ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.

### **ERABAKIA:**

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra

IKUSIRIK, 29-09-2021-066 erabakia, non Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu baitu,

IKUSIRIK, 20230331-006 erabakia, 2023 aurrekontuaren norabideen txostena aurkeztu eta haren inguruko eztabaida izan dela aitortzen duena,

IKUSIRIK, 2023ko apirilaren 4ko finantza batzordearen iritzia,

Kontuan izanik, 2023ko hasierako aurrekontuaren aurkezpen txostena,

Kontuan izanik, ondotik egiten den aurkezpen sintetikoan 2023 hasierako aurrekontua atalez atal orekatua dela:

	Gastuak	Sartzeak
Funtzionamendu atala	7 815 159,00 €	7 815 159,00 €
Inbertsio atala	5 407 996,65 €	5 407 999,65 €
<b>Orotara</b>	<b>13 223 155,65 €</b>	<b>13 223 155,65 €</b>

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio gai honi buruzko erabakia hartzea.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

**ONETSI DU, aurrekontu nagusiko 2023ko hasierako aurrekontua.**

### **HITZ HARTZEAK:**

*Eliane Aizpuru andereak espreski Zerbitzuetako Zuzendari Nagusia, kontularitza, teknika eta Giza Baliabideetako zerbitzuak eskertu ditu prestatu dituzten dokumentu guztiengatik.*

*Herri biltzarkide guztiek ukan dute aurrekontu horren egiteko azalpen taulen berri. Dokumentu horiek 2023ko apirilaren 4ko finantza batzordean aurkeztu ziren eta aldeko iritzia ukan zuen.*

*Finantza batzordean aurkeztu zen kontuen bertsioan egin aldaketa batzuen ondotik, funtzionamenduko sartzeak eta gastuak 10 435 €z aldatu dira, lehenago aipatu arrazoiengatik, hots bizitegi zergaren tasaren emendatze behartua funtsen gaineko zergarenaren arabera. 10 435 € horiek 130 000 €koak ziren besta eta ospakizunen gastuetatik arbitrarioki kendu ditugu.*

*Aurrekontua 13 223 155,65 €tan orekatzen da: 7 815 159 € funtzionamenduan eta 5 407 996,65 € inbertsioetan.*

*Aizpuru andereak funtzionamendu ataleko sartzeak aurkeztu ditu ( 7 815 159 €), 7 702 959 €ko sartze errealekin, honela banaturik:*

- 002 - Funtzionamenduko emaitzaren berriz hartzea ..... 1 020 104,10 €
- 013 - kargen lausotzeak ..... 39 000,90 €
- 70 - zerbitzuen sartzeak ..... 905 900,00 €
- 73 – zergak..... 4 157 453,00 €
- 74 - Zuzkidurak, dirulaguntzak eta parte hartzeak..... 1 298 191,00 €
- 75 - Kudeaketa arrunteko beste sartzeak..... 266 560,00 €
- 76 – Finantza etekinak..... 15 000,00 €
- 77 – Ez ohiko etekinak ..... 750,00 €

*042n, 112 200 €ko sailen arteko ordena eragiketak*

Véronique Cadepond-Larronde andereak galdetu du ea merkatuak eta hatu merkatua 73154 artikuluan sartzen direnez: leku eskubidea.

Eliane Aizpuru andereak ihardetsi dio hala dela merkatu guzientzat, eta galdetu dio zergatik egin duen galdera hori.

Véronique Cadepond-Larronde andereak galdetu du ea aulkiak eta objektuak kanpoan ezartzeko eskubidea duten saltzaileek ordaintzen duten zerga berezia artikuluan sartzen den.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu dio zerga berezi batzuk 70323 artikuluan sartzen direla; eremu publikoa okupatzeko zerga berezia.

Aizpuru andereak funtzionamendu ataleko gastuak aurkeztu ditu ( 7 815 159 €) 7 382 159 €ko gastu errealekin, honela banaturik:

- 011 - karga orokorrak.....	2 477 015,00 €
- 012 - Langileria kargak eta antzekoak.....	3 142 800,00 €
- 014 - etekinen lausotzeak .....	130 640,00 €
- 023 - inbertsio atalerako transferentzia.....	730 000,00 €
- 65 - Kudeaketa arrunteko beste kargak .....	840 618,00 €
- 66 - finantza kargak.....	60 086,00 €
- 67 - ez ohiko kargak .....	1 000,00 €

042n, 433 000 €ko sailen arteko ordena eragiketak

Aizpuru andereak inbertsio ataleko gastuak aurkeztu ditu ( 5 407 996,65 €), 4 624 799 €ko inbertsio gastu errealekin, honela banaturik:

- 16 – zorren itzultzea .....	384 600,00 €
- 20 - ibilgetu gorpuzgabeak.....	143 400,00 €
- 21 - ibilgetu gorputzdunak .....	1 111 062,68 €
- 23 - bidean diren ibilgetuak .....	3 468 764,96 €
- 26 - parte hartzei loturiko partizipazioak eta hartzekoak .....	5 000,00 €
- 27 – beste finantza ibilgetuak.....	152 969,01 €

040an, 112 200 €ko ordena eragiketak eta 041ean, 30 000 €ko ondare eragiketak.

Aizpuru andereak inbertsio ataleko sartzeak aurkeztu ditu ( atala 5 407 996,65 €tan orekaturik) 4 944 996,65 €ko sartze errealekin, honela banaturik:

- 001 - Inbertsioen egikaritze saldoaren gibelatzea .....	1 723 169,61 €
- 021 - funtzionamendu ataletiko transferentzia.....	730 000,00 €
- 024 - inbertsioen uzteak .....	1 500,00 €
- 10 - Zuzkidurak, Orotariko Funtsak, Erreserbak.....	409 382,27 €
- 13 - Inbertsiorako dirulaguntzak.....	1 100 944,77 €
- 16 – Maileguak eta antzeko zorrak .....	980 000,00 €

040an, atalen arteko 433 000€ko ordena eragiketak eta 041ean 30 000€ko ondare eragiketak (hots 463 000€)

2023 urteko inbertsio programa 4 876 196,65 €koa da, eta Aizpuru andereak honela zehaztu ditu inbertsio gastuak:

Hautzain: argiteria publikoaren eraberritzea .....	207 405,17 €
Kanboko elizako organoa.....	400 000,00 €



Tenis zelai estaliak.....	1 669 786,63 €
Arnagako fatxaden margotzea .....	333 658,29 €
Eskolen karrikako sareen lurperatzea .....	73 000,00 €
Argiteria publikoa .....	154 000,00 €
Kirol zelai sintetikoa .....	17 000,00 €
Ezker paretaren eraberritzea .....	75 000,00 €
ToLFEP: Beaulieu funts programa.....	152 969,01 €
Bideo babesa .....	70 000,00 €
Coworking lokala .....	45 000,00 €
Tenis zelaietako hesien eraberritzea.....	35 000,00 €
Zalditegi eta laranjategiaren eraberritzeko proiektua .....	50 000,00 €
Errepideak.....	650 000,00 €
Errepide seinale argizkoak .....	255 000,00 €
Bru etxeko apartamentuko lanak .....	60 000,00 €
Igerilekuko apartamentuko lanak .....	30 000,00 €
Pilotarne lokala.....	13 000,00 €
Herriko Etxea (eraikinaren estankotasuna).....	50 000,00 €
Afixatze totema + informazio panel argizkoak .....	80 000,00 €
Jendarmeria: hesia eta xeila automatikoa.....	35 000,00 €
Autokarabanentzako konexio guneak.....	20 000 €
Arnaga: argiztatzeak.....	50 000 €
Zerbitzu teknikoen materiala .....	125 000 €

Arnagako argiztatzeari buruz, Véronique Cadepond-Larronde andereak galdetu du ea baduen horrek ikustekorik lekuaren argiztatearen ondoko arazoekin.

Eliane Aizpuru andereak baieztatu du noizbait konpondu beharko den arazoa dela.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak azaldu du, parkea argiztatzeko lanak arazoak ematen ari direla eta instalazioa egin zuen enpresarekin aterabide baten atzematen ari direla. Desordenak eta akatsak identifikatu ziren materialean eta instalazioan. Diagnostiko oso bat programatua da instalazio eta material arazoaren bolumena neurtzeko. 2019an kostua 40 000 €tan baloratu zen, baina zenbateko zehatza diagnostiko berriaren ondotik ezagutuko da.

Véronique Cadepond-Larronde andereak orain ulertu du arazo hori Herriko Etxearen gain dela.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak baietz.

Nicole Amestoy andereak galdetu du ea argiteria publikoarentzako PB/OK LED bonbiletara pasatzearekin lotua denez.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak erantzun dio bi gauza badirela: LED bonbiletara pasatzea eta armairu elektrikoak arauetara egokitzea.

Aizpuru andereak espero diren dirulaguntzen zehazteari ekin dio, orotara 1 100 944,77 €rentzat.

Auzapezak bozkara eman du.

## **013 – 2023ko Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK - AP/CP).**

### **ERABAKIA:**

Aizpuru andereak, auzapez ordea, honakoa azaldu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2311-3 artikulua arabera, aurrekontu zuzkiduretako inbertsio gastutzat har daitezkeela Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK).

M57 kontularitza nomenklaturaren arabera, programa baimenen prozedurak (PB) onar daitezke inbertsio gastuentzat.

2022ko apirilaren 12ko erabakiz lau PB/OK sortu ziren, 2022ko abenduaren 21eko erabakiz horietako bi berrikusi ziren eta bi berri sortu.

#### **1- Existitzen diren PB/OK:**

Gauzatzen bilana egin behar da, eta beharrezkoa balitz 2023 eta ondoko kontu ekitaldietan doitzeak egin: 1. eranskina.

#### **2 – PB/OK berriak:**

2023ko hasierako aurrekontuaren prestatzeko lau PB/OK berri sortu behar dira, baita horien banaketa 2023-2025 artean: 2. eranskina

Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

**ONETSI DU, 2022an sortu ziren eta eranskinean den PB/OKen bilana, eta OKen banaketa berria onetsi du;**

**ONARTU DU, 2. eranskinean azaltzen denaren arabera, lau PB/OK berriren sortzea.**

**BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, programa baimenen araberako gastuen egiteko eta datxizkion gastuen agintzeko,**

**ZEHAZTU DU, 2023ko ordainketa kredituak 2023ko aurrekontuan agertzen direla dagozkien ekintzetan.**

*Existitzen diren PB/OKei buruz, Aizpuru andereak honela zehaztu ditu gauzatu diren ekintzen bilana eta egin beharreko doikuntzak:*

*2022-001 → Haurtzaingo argiteria publikoa: PBaren zenbatekoa 242 512 €tik 246 282,39 €ra pasatu da, 2023an 207 405,17 €ko ordainketa kreditu batekin.*

*2022-002 → San Laurendi elizako organoa: BParen zenbatekoa 435 000 €tik 478 740 €ra pasatzen da, 2023an 400 000 € eta 2024an 39 890 €ko ordainketa kreditu batekin.*

*2022-003 → tenis zelai estalien egitea: PBaren zenbatekoa 1 670 000 €tik 1 690 000 €ra pasatu da, 2023an 1 669 786,63 €ko ordainketa kreditu batekin.*

*2022-004 → Arnagako aitzinaldeen margotzea: PBaren zenbatekoa 402 000 €tik 409 000 €ra pasatu da, 2023an 333 659,29 €ko ordainketa kreditu batekin.*

*2022-005 → Fagalde etxearen eskuratzea: PB/OKren deusezte*

*2022-006 → Eskolen karrikako sareen lurperatzea: 73 000 €ko PBa ez da aldatu, eta 2023an 73 000 €ko ordainketa kredituarekin segitzen du*

*Aizpuru andereak, lau PB/OK berriren sortzeko proposamena zehaztu du, ondoko hiru urteetan banaturik:*

2023-007 → argiteria publikoa: 344 400 €ko PBa (2023: 154 000 €; 2024: 95 200 € eta 2025: 95 200 €)  
2023-008 → kirol zelai sintetikoa: 1 186 000 €ko PBa (2023: 17 000 € eta 2025: 1 169 000 €)  
2023-009 → ezker pareta: 2 502 600 €ko PBa (2023: 75 000 € eta 2024: 2 427 600 €)  
2023-010 → Paskalekuko biribilgunea: 400 000 €ko PBa (2024: 400 000 €)

## 014 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2023ko hasierako aurrekontuaren bozkatzea.

### **ERABAKIA:**

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra

IKUSIRIK, 29-09-2021-066 erabakia, non Herri Biltzarrak M57 kontularitza araudi berria 2022ko urtarrilaren 1etik erabiltzea onartu baitu,

IKUSIRIK, 20230331-006 erabakia, 2023 aurrekontuaren norabideen txostena aurkeztu eta haren inguruko eztabaida izan dela aitortzen duena,

IKUSIRIK, 2023ko apirilaren 4ko finantza batzordearen iritzia,

Kontuan izanik, 2023ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko aurkezpen txostena,

Kontuan izanik, ondotik egiten den aurkezpen sintetikoa, funtzionamendu atal bakarra duen hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia honela orekatzen da:

	Gastuak	Sartzeak
Funtzionamendu atala	39 027,00 €	39 027,00 €

Ondorioz, Herri Biltzarrari proposatu dio gai honi buruzko erabakia hartzea.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak, aho batez honakoa erabaki du:

**ONETSI DU, 2023ko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiaren 2023ko hasierako aurrekontua, funtzionamendu atal bakarra duena.**

### **– Bestelako gaiak:**

*Auzapezak jakitera eman du, bestelako gaietan oposizioak bi galdera pausatu dituela. Lehen gaia, Nathalie Aïçaguerre-k aipatu segurtasun eta delinkuentziaren prebentziorako tokiko Batzordeari buruzkoa da, eta bigarrena saio hastapenean jorratu den gaia, hots "bideak" batzordearen nondik norakoak.*

*Aïçaguerre anderearen galderari dagokionez: «zer gertatzen da Tokiko Seguritate eta Delinkuentziaren Prebentzio Batzorde baten sortzearekin: batzordea sortu al da? Baiezkoan, nork du osatzen? », Auzapezak ihardetsi du, momentuz batzordea ez dela osatu, ez ofizialki, ez eta osaketa ere. Bideo-babesa osoki garatua izatea itxaroten dute, jakinez azken trabak laster deuseztatuko direla.*

*Nicole Amestoy andereak aukera baliatu du zehazteko, arazoak ematen dituzten kameren egiaztatze lana egitekoa dela hurrengo asteazkenean, eta oraindik eskas direla hiletzeko biribilgunekoa eta hiri-sartzekoa.*

*Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak argitu du kasik traba guziak asteazken goizean altxatuak izanen direla.*

*Auzapezak saioa bukatu nahi izan du adierazpen bat eginez. Arrats honetan aurrekontu saio garrantzitsua zen, eta ondorioz deitoratzen duela oposizioko, edo oposizio bateko hautetsiek, zeinak biziki baturik agertu baitira, Herri Biltzarreko saiotik joatea erabaki dutela. Gehiengoko taldearekiko bide izenen frantsesezko eta euskarazko toponimoei buruzko desadostasun bat hartu dutela ere aitzakia gisa zehaztu du.*

*Egiazki, hori gaiaren instrumentalizazioa besterik ez da, hasierako aurrekontuaren bozkatzea oztopatzeko, nahiz eta denek dakigun gaurkoa dela dudarik gabe urteko saiorik garrantzitsuena, herriaren garapen ardatzak finkatzen baititu.*

*Horrela, aurrekontuari buruz partekatzea eta eztabaidan ez parte hartzea, bere ustez Kanboarrek hautetsi horien gain ezarri duten konfiantzaren urraketa arduragabea da.*

*Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 21:08an hetsi du.*

**Véronique CADEPOND-LARRONDE**  
Saioko idazkaria

**Christian DEVEZE**  
Kanboko Auzapeza